


## Zentral nuklearrak itsasoan?

FUKUSHIMAKO ISTRIPUAK tsunami batek kaltetutako tresneria elektrikoan izan zuen oinarria. Tresneria elektrikoa kaltetzeak erregai erradiaktiboa zegoen eraikinetara ura ezin eramatea eragin zuen, eta hozte-sistema etenda geratu zenez erregaia izugarritzko tenperatura hartu eta telebistan ikusi genituen suteak eragin zituen.



ÆBETAKO MIT institutuko ikerlari talde batek diseinu berritzaile bat prestatu du zentral nuklearrentzat, eta horretarako petrolio plataformak hartu dituzte eredu. Ingeniarien arabera, euren diseinuan ezinezkoa da matxura elektrikoa izatekotan ur hornidura etetea, erregai-barrak itsasoaren azpian egonik urak grabitatez zirkulatuko bailuke hozte-sisteman zehar.

Sistema horren beste abantaila tsunamien aurreko portaera da. Tsunamiak bortizki agertzen dira itsasertzean eta ez hainbeste itsaso barrenean. Abantaila hori bera petrolio plataformek dute. Hala ere, oraindik galdera ugari erantzun beharra dago MITeko diseinua benetan gauzatu daitekeen jakin aurretik. ■



## Zebren marrak, eltxoen aurkako babesa

Azken mendean zientziak bost hipotesi nagusi eman ditu zebren marra zuri-beltzak esplikatzeko: kamuflajea, harrapariei nahas-mendua eragitea, beroari aurre egitea, antolamendurako kodea eta eltxoen ziztadez babestea. Kaliforniako Unibertsitateko biologo talde batek egindako ikerlanaren arabera, azken hori da marra ospetsuen zergatia.

ttiki.com/64106  
(Euskaraz)

## Kostaldearen higadura izugarria Euskal Herria eta Britainia bitartean

Negu honetan 30 itsas enbata baino gehiago atzeman dira. Biarritzetik Bordele bitarteko guneko batzuetan itsasertzak hogeita metro egin du atzera. Higadurarekin batera, itsasoaren aurrerakadak hainbat guneko hondoratzea eragin du.

ttiki.com/64107  
(Frantsesez)

## Oiloen begia, material berri batentzako oinarria

HEY PAUL-CC-BY



OILOEN begietako zelula fotosentikorren egitura "hiperuniformeki desordenatua" da. Fisikariak orain hamar urte hasi ziren arestian egoera horretan dagoen materiala aurkitu nahian, eta berriki oiloen begietan topatu dute.

Hiperuniformeki desordenatutako materiala solido kristalino eta likido baten artekoa da, eta erregularitasun handia du eskala handian, baina izugarritzko desordena eskala lokalean. Egoera horrek oso propietate fisiko interesgarriak ditu, hala nola argia efizientzia handiz transmititzeko gaitasuna. Horrek iraultza handia eragin dezake elektronikan.

Ikerlariak aurkitutakoa, noski, material berri baten oinarria da; orain, material hori sortzea "baino" ez da falta. ■



## Transistoreen bizkortasun errekorra hautsi dute

ÆBETAKO bi institutu teknologikok iragarri dute transistore batek 798 gigahertzetan funtzionatzea lortu dutela, hau da, 200 gigahertzetan hobetu dute orain arteko marka. Lastertasuna handitzeak eragin handia izan dezake komunikazioetan.

ttiki.com/64108  
(Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak



**iametza**  
interaktiboa  
www.iametza.com  
T.943 37 67 16